

ITSASARGIKO MISTERIOA

XABIER GALARRETA



© Marjinalia Bilduma
2000. urtea
Lege-Gordailua: SS-000/2010

ITSASUNTZI MORTUA

Gau hartan bertan bitakorako koadernoan urduri hasi zen ordura arte gertatutako guztia azaltzen. Egun beltzak, aspalditik pasata zeuden egun izugarriak aipatzen zituen... Den-dena, ezer ezkutatu gabe.

Baziren bestelako egunak ere, oroitzapen garbi eta alaiekin batera sailkatzeko modukoak... Baina orain denak hilik zeuden. Printze beldurgarriren batek itsasuntzia bisitatu izan balu bezala.

—Nire lagunak, nire marinel zintzoak... —ahoskatu zuen kekakor. Gero, minaz kizkurtuta Kapitain gizajoak begiak itxi zituen.

Haizea fresko eta azkar zetorren, aurreko egunetakoa ez bezala. Bera han egotea, itsasuntzi inorgabe hartan, gustu txarreko txantxa nazkante bat bezala agertzen zitzaion, txantxa krudel eta doilorra.

—Taiugabea!— oihukatu zuen amorruez. Gero kandela bat piztu zuen eta kontramaisuaren aurpegi zurbil, zimurtzen hasia nabarmendu zuen itzal artean.

Kontramaisua baziren bi egun hil egin zela. Baina pena ematen zion hura ere kareletik botatzeak, bakardadea erabat jasanezin zitzaion-eta. Ilargi errainu bat sartu zen kamaroteko lechio biribilean barrena eta hildakoaren aurpegitik hedatu zen lotsagabe.

Juan Luis Igerabidek une batez begirada urduri bat bota zuen bazter baterantz, zerbait mugitzen zela iruditu baitzitzaion.

—Ez zegoan han ezer, halajaina —marmartu zuen

odol hotza berreskuratuz.

Gauerdia izango zen, denbora behar bezala neurtzerik ez bazegoen ere. Minutuak, orduak, egunak elkarrekin nahastuta, tartekatuta igarotzen zitzaizkion, lotaldi amaigabe batean bezala.

Hildako kontramaisua aulki batean erdi etzanda zegoen; eta Igerabide kapitaina, berriz, haren aurrean eserita, hildakoari begira, isilik. Gorpu harekin egoteak ez zion beldurrik ematen, ez eta asaldatzen ere, Juan Luis Igerabidek beldurraren muga zeharkatuta zeukalako. Dena den, gorputzari haragi ustel usaina jariotzen hasia zitzaion, eta horrek erabaki bat hartzera premia zuen.

Tentu handiz, gorpua gehiegi oker ez zedin, lepo aldetik eta berna ingurutik heldu zion hildakoari. Gero, gihar guztiak teink eginda, gorputza besoetan jaso eta eskaileretatik untziko gainazalera igotzen hasi zen. Urrats bakoitzean, hildakoak beso alfer bat zabukatzen zuen airean.

—Entierroek niri beldurra ematen zidatela pentsatzea ere -murmuriatu zuen Igerabide kapitainak, eta barretxo bat eskapatu zitzaion.

Kontramaisuari begiratu zion. Mutil gaztea zen, hogeita hiru urtekoa nonbait. «Mutil adiskidetsu eta xaloa, bai...» pentsatu zuen «Lehorrean emakume guztiez maitemintzen zen horietakoa. Leialtasunaz, ohoreaz eta antzeko gauzez hitz egiten nioan». Barre bat jaurtiki zuen «Zer axola du orain munduko birtuteak, munduko onginiak edota munduko burruka guztiek?». Izulaborriaren zoramena gainditua zeukan. Eta itsasoko eta untziko hots miresgarriez gain, beste soinurik ez zuen entzuten, kezkatzen.

Gainaldera iritsi zenean, presarik gabe, hildako

kontramaisua bota zuen itsasora, otoitz gabe eta banderarik gabe. «Zertarako, ba?» galdegin zion bere buruari.

Gero, itsumustuan lematokira joan zen. Lema lokarri batzuez lotuta zegoen, eta beti iparrerantz gidatzen zuen.

Bat-batean haize indartsuak jo zuen.

—Zenbat denbora daramat itsasoan? -galdegin zion Juan Luis Igerabidek bere artean ozenki, denboraren nozioa galdua zuen-eta. Eta pentsatu zuen haizea lagun hurrengo egunetan urrutirago joango zela, untxiak ere aurreko egun ikaragarriak atzean utzi nahi izango balitu bezala.

Oroimenak eman ahala pasadizo gehienak idazten zituen bitakorako koadernoan, lehorrera iristeko ez esperantzarik ez gurarik ez bazuen ere, tragediaren argitasunak behintzat norbaiten eskuetara iritsiko zirelakoan.

Itsasoratu aurreko egunak gogoratu zituen. «Kaxa horiek susmo txarra ematen zidatek» entzun zion marinela bati pleita untzira igotzen ari zirenean. Marinela kaxa batzuei buruz ari zen eta Igerabidek oso ongi gogoratzen zituen marinela hitzak, alde batetik zerbait igartzen zutelako eta beste aldetik bera, marinela ia guztiak bezala, superstizioso zelako.

Gaueko hamaikak jotzen entzun zituen kamaroteko erloju zaharrean. Lematoki ondoko bi kandela piztera joan zen, beharrak eraginda baino, ohitura hutsez. Berrito ere itzal bat iruditu zitzaion txoko batean ezkututzen ikustea, eta atezuan jarri bazen ere, ez zuen espanturik erakutsi. «Bo! Hainbat itzal ikusita zeuzkat jadanik» esan zion bere buruari. Eta ez zion arretarik gehiago eman gertakizunari.

Igerabide kapitaina oso altua zen, eta burdinaren sendotasunaz gogorturik ematen zuen. «Kaxa horiek susmo txarra ematen zidatek» gogoratu zituen berrito marinela

hitzak, orain hilabete luzea esanak.

Bazen kaxa haietan beldurra ematen zuen zerbait, txistu antzekoak entzuten baitziren, eta baita karraska misterioitsuak ere, *gauzatxo* batzuk kaxa barrutik korrika arituko balira bezala. Bestalde, «OSO ARRISKUTSUA. EZ IREKI» letra handi haiek ez zuten ezer onik iragartzen. Jakina, marinel guztiek errezeloz begiratzen zieten kaxei.

Gogoratzen jarraitu zuen:

«—Zertan habil? —galdetu zion marinel bati.

—Nire kapitaina, kaxa horiek ez ditut gogoko —
erantzun zion besteak.

Eta Igerabide kapitainak sinesgabetasunik gabe begiratu zion. Hala ere, zirrara harrigarria sentitu zuen, beste xehetasunik aipatu beharrik izan ez zuen arren».

Lema ongi lotuta zegoela ziurtatu eta gero, bertotik urrundu zen.

—Kaxa madarikatu haiek... —marmartu zuen distraituki.

Gero, bere kamarotera jaitsi, bitakorako koaderno ireki eta iraganean murgildu zen ostera ere:

«Kaxak zamatu genituen eta handik gutxira arazoak hasi ziren. Hasieran izuikara mingarriak bereganatu gintuen. Egia esan, marinel guztiak izualditan esnatzen ziren, kaxako hotsak gau lasaietan untziko bazter guztietatik entzuten baitziren. Gero, zoritxarreko erauntsia etorri zen. Eta fatalitatea gehitu zitzaion, zeren norbaitek kaxak ez baitzituen behar bezala lotu eta, untzia kulunkak eta zabunkak zirela eta, kaxak hautsi egin ziren elkarren kontra topo eginda, barruko gauza nazkagarri haiek askatasunean utziz. Eta piskanaka-piskanaka untziaz jabetu ziren.

Denak lotan ari zirela, oihu lazgarriak entzun

genituen, eta itzalak eta kolore iluneko formak lehenengo aldiz ere ikusi ziren. Sukaldean sukaldaria topatu genuen hilik, eta gau osoa pasatu genuen gorpuarekin, beilan. Medikiak oso garbi esan zuen: Pozoin gogorren batek hil egin du. Pozoina! Marinela guztiak zuri eta izozturik bezala zeuden. Inor ez zen ausartzen burutik zebilakiona esaten. Hala ere, denok bagenekien kaxako gauza nazkagarriak arrazoiren batengatik libre zeudela. Oraindik ez ginen ohartuak kaxekin gertatutako istripuaz. Gero, sukaldetik irten ginen eta bi marinela agindu nien sotora jaitsi eta kaxak ongi zeuden begiratzeko. Ondorengo minutuak isil-isilik pasatu genituen, geure bihotzeko taupak besterik ez genituela entzuten. Ni sotoko atetxo aurrean geratu nintzen, bi ofizialekin eta kontramaisu gaztearekin.

Bi gizonak, ordea, ez ziren inoiz itzuli».

Gogorapen hauek, hain hurbilak izanik, bereziki mindu zuten Juan Luis Igerabide. Bere oroitzapenak zeinekin erdibanatzerik ez izatea zen gehiena kostatzen zitzaiona jasatea. Zurrumurrurik bat entzun zuen ezker aldetik. Igerabidek azkar-azkar jiratu eta pistola bat ateraz kargadore osoa hustu zuen *gauza* haren aurka, amorruz eta errabiaz.

—Itzal nazkagarriok! —oihukatu zuen. Eta bere ahotsa itsasoan galdu zen, alferrik eta izugarri.

Gero, bere ahotsaz nonbait ikaratuta, gau beltzean galtzen zen itsasoari begiratu zion zurbil eta atezuan.

Igerabidek ez zuen lorik egin azkeneko gauetan eta horrek, hasiera batean, suminduta jartzen bazuen ere, orain berriz zozotasun kontrolatu batean eroria bezala zebilen. Berak bazekien handik ez zegoela ihesi joaterik. Itsasoa gartzela erraldoia bezala agertzen zitzaion. Askatasun hori guztia, amets hutsa. Lakio batean harrapatuta bezala.

Begiek dirdir egiten zioten, baina jadanik ez zen ez kontramaisurik, ez ofizialik ez marinelik. Beraz, «nor dela eta isuri malko bat?» galdegin zion tristeki bere buruari. Bera ere laster jarraikiko zitzaien besteei. Bera ere laster hildako bat gehiago izango zen itsasuntzi mortu hartan.

—Guztira hogeita zortzi gizon gintuan -pentsatu zuen ahots goraz, oraindik sinestu ezinez— eta ni bakarrik gelditzen nauk!

Iparrera begiratu zuen berriro, untzia iparrera eraman nahi zuen-eta. Pistolaren kargadorean beste bala batzuk sartu zituen, ekintzari erreparatu gabe ia-ia. Ipar poloa deika ari zitzaion. Ipar polora iritsi beharra zeukan. *Gauza* haiek Afrikako portu batean jasoak zituzten. Beraz, *gauza* haiek ez ziren inolaz ere izango hotza soportatzeko gai. Balitekeena zen bera ordurako hilik egotea. Baina horretarako zeukan lema horren ongi lotua. Hilda ere, untziak iparrera jarraituko luke, esku ikustezin batek bezala gidatua, asmoak ere itsas ibilbide bat gauzatzeko gai izango balira bezala.

Itsasoa ulertzen zaila bada ere, badago modurik horretatik guztitik argitan zerbait ateratzeko. Ulertzen ez dugunak, ordea, ikara gorrian biltzen gaitu. Igerabide, hain nekatuta zegoen, ikarak jadanik ez ziola ezer eragiten. Gainera, berarentzat hura miraria bezalakoa zen. Untziko gainazalean isilik zegoen. Itsasoko hotsak ere isilak zirela ziruditen.

—Bai... —ahoskatu zuen—. Garaia duk iparrera joateko, izotzetan galtzeko.

Hitz horiek haren heriotza igertzen zuten, baina bera ez zen horretaz ohartu. Untzia bizkor abiatzen ari zen, eta horrek besterik ez zion axola.

Eta bere gogorapen haietan murgilduta jarraitu zuen, ameskaiztoaren hasiera oroimenera ekartzeko:

«Bi ofizialek, kontramaisuak eta hirurok elkarri begiratu genion hitzik gabe. Azkenez, ofizial batek esan zuen:

—Alferrik da, kapitaina. Bi gizon horiek ez dira itzuliko.

Une goibelak izan ziren haiek. Konponbide bat sotoko tranpila ixtea zen. Hala ere, guk bagenekien horrek ez lukeela ezer konponduko. Gauza haiek txikiak eta irristakorrak ziren. Bilatuko zuten, bilatu ere, hamaika bat zulotxo, zirrikitu eta sarbide untzi osoan zehar zabaltzeko, hedatzeko, gure untziaz eta gure biziez jabe egiteko! Arrazoiketa hau ez nion beste lagunei jakinarazi, baina beraiek ere gauza bera gogoan zutela ohartu nintzen.

Maite nuen kontramaisua, baita ofizialak, marinela eta untzia bera ere. Jainkoak badaki zeinen mingarria izan zen niretzat beste bi gizon satora bidaltzea.

—Zaude beste bi minutu gehiago —eskatu zidan kontramaisuak—. Neroni jaitsiko naiz, bi gizonak agertuko ez balira.

Bi minutu... eta ordudubete inguru ere igaro zen! Baina kontramaisuari ez nion joaten utzi. Marinela bati agindu nion behera jaisteko. Baina ez zuen nahi izan. Nik, ulerker, boluntariorik eskatu nuen. Aurretik marinela guztiak bilarazi nituen, alferrik zen-eta egoeraren larria ezkututzen saiatzea. Marinela zahar batek urrats bat aurrera eman zuen. Beste bat ere azkar lehiatu zen gauza bera egiten. Marinela zaharrak, ordea, ez zion utzi.

—Bi gizon galdu dira jadanik, eta ni zaharra naiz, kapitaina. Beraz, gertatuak gertatu, nire galera untzirako ez

da oso garrantzitsua izango».

Igerabide kapitainak zizpuru sakona bota zuen eta begiak esku batez igurtzi zituen, marinel zaharraren adore eta bihotz zabaltasunak berriro ere hunkituta.

Txopako argia itzalita zegoela ohartu zen eta hara jo zuen hura pizteko. Ilargia zeruan garai zegoen eta untzia eta itsaso berde-iluna argitzen zituen.

Argia pizteko zorian zegoelarik, farolilo barruan zerbait mugitzen zela konturatu zen.

Jitez-edo pistola eskuan hartu zuen eta pare bat segunduz *gauza* nola mugitzen zen begira-begira iraun zuen. Ilargia gorabehera, ilun beltza egiten zuen untziko alde horretan, eta ondorioz *itzal* bat baino ez zeukan nabarmentzerik. Bat-batean bi puntutxok dirdir egin zioten. *Gauzaren* bi begiak ziren!

—Madarikatu alua!

Eta tiro egin zuen. Tiro bakarra oraingoan. Faroliloa hamaika puskatan atera zen airetik eta zatiak itsasoak irentsi zituen, axolagabe. *Gauza* hartaz arrastorik ia ez zen gelditu, bete-betean asmatu zuelako seinale. Haragi puska antzeko zerbait besterik ez zuen kausitu, eta baita isurki ilun baten arrastoak ere.

—Bat gutxiago! —deiadar zuen pozaren pozez Juan Luis Igerabidek.

Baina zenbat ziren guztira? Dozenaka, harez gero ehundaka ere ibiliko ziren, untziaz jaun eta jabe, Infernuko zati bat bere itsasuntziaz baliatu izan balitz bezala ihes egiteko. Eta deiadar egiteko gogoa izan zuen. Eta indar guztiekin deiadar egin zuen eta bere oihua erlats eta izugarri entzun zen itsaso sentigabeen.

Ilargiak uretan dardar egiten zuen, olatu

amaigabeetan agertuz eta segituan desagertuz, jolasean bezala. Gizakien kontuez barre egiten duen ilargi min eta polita. Hain urruna, hain biribila, hain simplea eta sofistikatua... Baina Juan Luis Igerabidek ez zuen han beste ezer bere patu goibelaz ahazteko, eta azken buruan edertasuna da —unerik gogorrean ere— gizakiari geratzen zaion atseden eta ihesbide bakarra...

Igerabidek bere koadernoan idazten segitu zuen:

«Marinel zaharraren hitzak hunkigarri gertatu zitzaizkigun. Une hartan, marinel guztion artean, edozein kategoria mota gainditua sentitu genuen. Sentimendu ederra zen. Arriskuak, heriotzaren hurbiltasunak denok berdintzen gintuen. Eta batez ere marinel garrantzizgabe hark erakutsitako maitasunak...»

Marinel zaharra jaitsi zen eta berriro ez genuen bizirik ostera ere ikusi. Orain dena zegoen oso garbi. Gauza haiek guztiek, edo gehienek behintzat, askatasuna berreskuratua zuten... eta gose ziren! Gose ziren, edo errabiaturik, edo eraso egiten ziguten dibertsio hutsez... Auskalo. Zer axola du orain arrazoiak jakiteak ala ez? Dena galduta dagoenean, bat zer garbi ohartzen den Zientziak ez duela piperrik ere balio, Zientzia porrotera kondenaturiko giza ametsa dela!

Sotoko tranpila iltzez eta oholez ixteko agindua eman nuen. Baina alferrikakoa izan zen eta horrek ez gintuen harritu, laster beste marinel bat azaldu baitzen hilda. Hau behintzat zorionekotzat jo genuen, heriotza lotan harrapatu zuen-eta. Beste batzuek, berriz, ez zuten zorte on bera izan eta oihu lazgarri artean eta ikaraz erabat jota joan ziren beste mundura.

Noizean behin gauza nazkagarri haietakoren bat

harrapatzen genuen eta zorabioz nahiz amorru biziz hil egiten genuen. Horrelakoetan hitz itxaropentsuek durunditzen zuten untzi osoan. Baina berehala gertatzen zen heriotzeren bat gehiago eta gure betiko desesperantzara itzultzen ginen denok.

Hamabost egun pasata, untziak jadanik ez zirudien gizatiarra. Ulertzerik ez geneukan zerbaitek jukutria ederra egin zigula sentitzen genuen. Untzia, bestalde, emeki aurreratzen ari zen, nonbaitera iristeko presarik ez balu bezala.

Gizonak fantasmak bezala ari ziren lanean. Isilean, izututa mugitzen ziren, zorutik arraстрatzen entzuten genituen gauza haietan ez pentsatzen saiatuz; inondik ere lortu gabe, noski, toki guztietan azaltzen baitziren, eta itsasoak baino beldur handiagoa ematen ziguten, gaez batez ere».

Juan Luis Igerabidek idazteari utzi, mahai gainean zuen pistola hartu, arretaz apuntatu eta tiro egin zuen. *Gauza* haietako bat bete-betean harrapatu zuen.

—Bigarren aldiz ordubete eskaseko tartean —esan zuen ahots urrun batez. Oraingoan ordea ez zuen poztasun handiegirik hartu, berak ba baitzekien untzia arrautzaz beterik zegoela, hau da, *gauza* haiek untzian bertan ugaltzen hasiak ziren, bai eta ugaltu abiadura sinestezinaz ere. Behin kabi bat aurkitu zuten eta errunaldi bakarrean bostehun arrautza baino gehiago kontatu zituzten.

—A ze egunak! —hots egin zuen koaderno itxiz eta mahaitik altxatuz. Gora igo zen, lema ongi lotua jarraitzen ote zuen ikustera.

Isiltasun basatiak beste ezerk ez zion lagun egiten. Baina berak garaipena prestatuta zeukan. Sinestezina zen

marinelik gabe untzia nola aurreratzen ari zen ikustea, hain bizkor, hain zuzen... Bazirudien haizeak izugarrikeria horretatik askatu nahi zuela. Bai, Ipar Polora iritsi beharra zeukan. Bere untzia han libratuko baitzen aztikeria hartaz. Han, izotzaren bihotzean, aurkituko baitzuen mendeku biribila. Beste itzal bat nabaritu zuen izkina batean mugitzen, baina ez zion tirorik egin, begirada anker bar jaurtikitzearekin konformatu zen-eta.

Urrundik bere marinelen aurpegiak ikus zitzakeen, barrez, kantari, oihuka. Hezurak bezalakoak ziren oroitzapenak... Semeak gerran galdu eta emazteaz alargundu berria den senar gizajoaren pareko ikusten zuen bere burua. Zer gihartsu, zer alai eta zer zintzo ziren denak!

—Marinelak eta ofizialak, kasta on-onekoak zituan, halajaina! -oihukatu zuen bat-batean.

Bere oihua gauan murgildu zen. Inguruan argi bat ere ez zegoen begi bistan. Eta pentsatu zuen horrela hobe zela, berak orain helburu bakarra baitzuen bere bizitzan, hau da, Ipar Polora iritsi beharra zeukan. Bere marinelengatik egingo zuen! Bere untiagatik! Bere buruagatik beragatik ere bai! Baina beste untzirik ikusiz gero, auskalo ahultasun une batean ez ote zion bere asmoari amore emango. Azken finean, zeru eta itsaso eremu gorri hartan erraza zen aupadari eustea. «Zibilizaziotik urrun erraza baita adoretzu eta jator jokatzeari» pentsatu zuen hironiaz.

Halako batean lepoan zerbait jartzen zitzaioela ohartu zen. Ikara imentzio bat islatzeko astia besterik ez zuen izan. Gero ziztada bat sentitu zuen.

Eskuaren kolpe batez *gauza* bere lepotik apartatu zuen eta behin lurrean oinaz zanpatu zuen zoro bat bezala, munduko amorru guztia bere baitan bilduta edukiko balu

bezala. Baina jadanik ez zegoen zer egiterik. *Gauzak* lepoan kosk egin zion, gainera zainik mardulenean kosk egin.

Bere heriotza denbora kontua baino ez zen, eta Juan Luis Igerabidek zeru mugari begiratu zion, bere bizitzako azken uneek sorginduta. Eskua luzatu zuen lema ongi lotua zegoela ziurtatzeko, asmo tematsu hartan itxaropenik oro jarrita. Ilargiak begietatik esku zuri bat pasatu zion eta berak begiak itxi zituen, begi zabal dautzan gorpuak zeinen ikaragarriak ziren gogoratuta. Eta sentitu zuen itsasoak eta untzia bultzatzen zuen haizeak bereganatuta zeukatela. Eta ez zion inporta alderdi hartan horrela hiltzeak, alderantziz baizik: ederra iruditu zitzaion. «Bakarrik ergelak sentitzen dituk libre» pentsatu zuen alaitasun batek hordituta. Larruazalean haize freskoaren ordeztu haize hotza sentitu zuen lehenengo aldiz, eta bizikiro poztu zen, horrek esan nahi baitzuen Ipar Poloa errealitate gisa gorpuzten ari zela. Horrelaxe zen, bai. Izotzak eta sei hilabeteko gauak eta tenperatura izugarri bajuak hilko zituzten *gauza* nazkagarri guztiak. Halabeharrez heriotza ekarri zuten animaliak asmo garbi eta gogor batek suntsituko zituen. Gero zentzuak alde egin zion eta Herio gaziak bere lekua hartu zuen.

Untziari ez zion heriotze hark axolarik eman, baizik itsasoa zeharkatzen jarraitu zuen, bizkor eta bipil, Igerabide kapitainaren tema berberaz. Aurreko gau eta egunetan izandako hildakoak, untzi osoan barreiatutako *gauzak*, lema ondoan serio eta isilik zetzan gorpua... untzia bazirudien oroitzapen zama bat ahanzturaren erresumarantz garraiatzen ari zela, gizon batzuek horretarako propio eraikia izan bailitzan.

Untzi bakarti beltz animaliaz jositako bat zen itsasoaren erdian, gizakiengandik urrun, usteltzen hasitako

gorpu bat marineltza bakar zeukana, mendiko trikuharria bezain misteriotsua, patu asmagaitz baterantz abiatua — gorpuak bakarrik zekien norabidearen berri, untzia ageri zenez ez baitzihoan noraezean, asmo garbi batek gidatua baizik.

Baina aldi berean itxura goibel eta bakardade kutsu nabarmena zituen. Eta horrek bakarrik edonori beldurra sartuko zion, zur eta lur geratzeko modukoa baitzen. Eta sentimendu izugarria bezain maitagarria eragiten zuen (maitagarria soi-soilik istorioa ezagutuz gero, etxe inorgabeko leihoan bat-batean piztutako argiarekin bezala, arrazoa alde zurretik jakin izan ezik). Beraz, alai bizkor izugarri eta indartsu ari zen nabigatzen, sentimendu anitzek bultzata, nekagaitz, haizea bera untziko gizonen patu ikaragarriarekin bat eginda bezala, itsasoak berak *zerbait egin beharra zegoela* ere erabaki balu bezala. Eta orduan izadia ez zen gizakiengandik aparte zegoen zerbait — lehorreko harria eta mendi txundigarriak bezala—, baizik haragizko bihurtu zen, ez bizigabe eta hotza, baizik bizidun eta axolatua untziko gizonekin, untziko gizonengatik. Izadiaren aurkako gizakiaren burruka azkenez bukatutzat eman balute bezala.

Bi aste pasata, lehenengo izotzak agertu ziren. Eta lau egunen buruan, untziko xafletan eta gainazal inguruan izotz puska mordoak zeuden pilaturik. Aurreko egunetako ustel usaina —Igerabideren gorpuari zeriona, jakina— behingoan desagertu zen, tenperatura bajuak usteltze prozesua bertan behera utzi baitzuen. Eta azkenez, itsaso jelatuan harrapaturik gelditu zen. Eta untzia bazirudien sinetsirik zegoela unibertsoak —orain bere helburua beteta zeukala— zentzua berreskuratua zuela, eta atsedean hartzeko

garaia heldua zela. Atsedean hartzeko garaia? Baita mendeku hartzekoa ere! Itsasoan zehar barreatutako marinelen gorpuek barre egin zezaketen orain, *gauza* nazkagarrien patuak egina zuen eta. Juan Luis Igerabidek ere lasai-lasai lo egin zezakeen orain, Ipar Poloak jakingo zuen-eta pizti ikaragarri haiek erruki gabe akabatzen.

Hotzak, grinarik gabe baina eraginkortasunez, txoko-moko guztietan bilatuz eta izotzen bakardadea lekukotzat jarritz hilko zituen *gauza* guztiak eta sekula gehiago ezingo zuten beste itsasuntzi on bat bere tripulazio eta guzti berriro ere hondatu.

Bazegoen, ordea, patuaren eskuetan geratzekoa zen galdera bat: aurkituko ote zuten inoiz izotzetan harrapaturiko untzia? Juan Luis Igerabidek bitakorako koadernoan idatzitako azalpenak suertatuko al ziren noizbait beste gizon batzuen eskuetan? Ala, zoritxarrez, hura inork aurkitu baino lehen, untzia izotzaren presioaren eraginez lehertu eta bukatuko ote zen itsas hondoa, sekretua berarekin betiko eramanez? Batek badaki!

Profesorea atetik sartu zenean, begietatik txinpartak ateratzen zitzaizkion.

—Ez da posible! Ez da posible! —oihukatzen zuen behin eta berriro.

Gelatik gora eta behera zebilen eta bibotearen punta bati bueltak eta bueltak ematen zizkion etengabe eta urduri. Soilik barru-barruko oinaze minak ematen duen ahotsaz hitz egiten zuen, erarik dardarkorrean asaldaturik.

—Bi urtebeteko lana pikutara! Galdu bi urtebete

Afrikako oihanean, bizitza jarri egunero kinka larrian, eta hori guztia zertarako? E, esaidazu. Zertarako?

Konpainiako Zuzendariak zehar begiratu zion, erantzun ala ez duda-mudatan. Azkenez, pazientziarik handienaz saiatuz, ihardetsi zion:

—Zuk lau intsektu galdu dituzu, Profesore. Baina nik unti bat bere tripulazio guztiarekin galdu dut.

—*Lau intsektu!!* —orro egin zuen Profesoreak—. *Lau intsektu* diozu!! Afrikako animaliarik pozointsuenak! Europako bildumarik handiena! Bi urtebete Afrikako bihotzean... alferrikatuak! Dirutza bat, Jainkoarren! Dirutza bat!

—Lasai zaitetz, arren —esan zuen soilik Konpainiako Arduradunak—. Aseguru Etxeak den-dena itzuliko dizu-eta. Nire gizonen biziak berriz, betiko dira joanak.

Profesoreak ordea ez zion entzun ere egiten. Dardarek hartutako esku batez betaurrekoak behin eta berriro jartzen zituen sudur gainean, eta ez zion oihukatzeari uzten.

—Sugerik pozointsuenak, armiarmarik izugarrienak, eskorpioi letalak, ukitzearekin instantean hiltzen zituzten apo berdeak, tse-tse euli beldurgarria, hamaika bat gaisotasunen helarazle diren intsektuak, oraindik sailkatu gabeko animali andana izugarria... Espezie bakoitzetik gutxienez dozena erdi ar-eme. Eta denak galduta! Dirutza bat! Dirutza bat! Zer egun beltza Zientziarako!!

ITSASARGIKO MISTERIOA

Bortxatuak, jipoituak,
umiliatuak eta euren sexua
dela-eta zokoratuak izan
diren haiei guztiei... (gizaki
baten erruduntasun onar-
tezin, aitorgaitza).

Itsasargiaren seinalea bere buruari atxeki zitzaion argirik ederrena bezala. Eta ahaleginak eginda ere, bere oroimenera ezin ekar zezakeen ezer hobeagorik kontakizunari ekiteko. Bestalde, marinela zaharrak ez zeukan jadanik behinolako oroimena, eta beraz, barru-barruan zirrarak handiena utzitako gogorapenari eskua luzatzea besterik ez zitzaion gelditzen. Iraganetik iritsitako zarata asaldagarria bezalakoa zen gogorapena.

—Handik zenbait egunen buruan, argi bat kausitu nuen itsasoan —kontatzen zuen zaharrak milagarren aldiz.

Zaharrak begiak itxi zituen, oroitzapenak buruan hobeto atxekitzeko.

—Argi hark bazirudien sorgin-argia —gogoratzen zuen—. Ez zen mundu honetakoa, gure adimenak konprenitzerik ez daukan oihua bezalakoa zen, naufragoarentzako deia, birak etengabe ematen eremu isolatu hartan.

Isilune bat egin zuen, gau hartako ikuspena aurrean balu bezala.

—Bai, begiak malkoz bete zitzaizkidan. Hain ezgauza nintzen ni itsaso hartan, korronte misteriosuen erdian...

Hurbilago egon zenean, zuhaitzak ikusi zituela gogoratu zitzaion.

—Zuhaitzak! Hain harrigarriak, hain zoragarriak ziren! Beren beso adartsu horiekin zerurantz, oihuka bezala... Lehorretik ehun bat metrora nengoen. Ehun bat

metrora! Zuhaitzak, eta buztina, eta ur goxoa... Lurra!

Gure hildakoak hartzen dituen lurra.

—Ni aski gizona nintzen garai hartan. Baina... negarrez hasi nintzen. Negarrez! Itsasargiak aurpegia argitzen zidan batzuetan. Eta segituan zuhaitzak. Eta lehor iluna. Eta harriak! Ai, harriak zeinen zoragarriak ziren... Gau munstruoso hartatik ateratzen ari nintzen, bai... Eta azkenez, oina lehorrean jarri nuen. Eta lurra bezain kanpotar sentitu nintzen han, hondartza koxkor batean belauniko, hortzak dardarka. Jainkoarren! Ni ez nintzen une hartan deus ere! Ni ez nintzen itsasoak txu egindako gauza ttiki bat baino, eta besterik ez! Burutik jauziko nuela uste nuen. Egiako gauzetatik hain urrun nengoen... Ez nekien gizakia ala olatua ote nintzen, hondartza hartara kasualitate hutsez iritsia, Ekuadorreko hondartza txiki batera iristen den uhin txikitxo eta anonimoaren pare.

Naufragoak eskukada bat hareara hertsitu zuen ukabilean, eta ahoan sartu zuen. Eztulka eta okaka hasi zen, hareara eztarrian korapilatuta. Itsasoan galduta zegoenean sumatutako bakardade, beldurra, itolarri, etsipena... botatzen ari zen. Baina itsasargiaren mezua hortxe zegoen, marfila bezain dirdiratsua, desastrearen erdian luzatutako eskuaren antzera, «itsasoko erraietatik salbatu haut» esanez bezala. Gero, itsasoa isildu egin zen.

—Nik ez dakit handik nola atera nintzen —jarraitu zuen marinel zaharrak bere kontakizunarekin—. Baina begiak irekitzerakoan arropa lehorrak jantzita neuzkala ohartu nintzen. Eta sua txinparka ari zen sutondoan, bizkor eta lotsagabe.

Hunkipena ematen zion giza beroaz jabetu zen, eta haurtzaroaren zati bat eta bizia bera ere berreskuratu berriak

zituela jakin zuen orduan.

—Denek dakite esperientzia horiek zailak direla onartzen, eta hori lortuta ere horrek prezio bat eskatzen dizula. Inori ez desiratzeko moduko eskarmentua baitzen nirea. Benetan. Harira joan nahi dut ordea. Utz ditzagun, beraz, «esaldi ederrak» —barre egin zuen— eta jo dezagun aurrera.

Agure zaharrak gogoratzen zuenez, kamastro buruan norbait ikusi zuenean ez zen harritu.

—Ezin diat dirurik eman— atera zitzaion beste ezer baino lehen.

Besteak, berriz, irriño batez ihardetsi zion.

—Ordaintzekotan —esan zion—, itsasargikoarekin kitatu beharko dituk zorrak.

Bai, itsasargi bat zegoen. Argi motel, samur eta salbatzailea. Errito bati jarraikiz bezala mugitzen zen argia. Itzaletik aterata bezala, erantzunik biribilea ematen zuen argia. Hilzorian dagoenak itxaroten zuena, zeren une bat iristen baita zeinetan errealitate bakarra abstrakzioa den, eta abstrakzio horri uko egitea zorionari uko egitea bezalakoa litzateke. Itsasargiaz oroitu zen, hain bitxia... Ezohikoa zen, jainkotxo baten distrakzioak salbatua... Zer ondorio atera daitezke hondamenetik onik irtendako bakarra zeu zarenean? Astakeria handia izango litzateke ondoriorik ateratzea.

—«Zerbaitek» erabiltzen zaituelako susmoa daukazu. Eta kitto. Egunak pasa dira denboratik kanpoko taberna batean bezala... Ni hura izan nintzen. Nik hura ezagutu nuen. Ezer ez. Azken batean, gure hutsaltasunaren izaerak lilurutzen gaitu. Eta historiaren iragateari agur egiteko altxatzen gara... urteak gu bainoagoa direla

konturatzerakoan, gaztaroa hosto zimelduaren parean atzean utzi eta gero.

Tankera hartako argia ordea, bihotzean sartu zitzaion agureari. Bukaeragabeko oroitzapena bezalakoa zen, bertan ostatu misteriotsua aurkitu zuela eta.

Misterio horrek bultzaturik edo, itsasargiari zegokion guztia jakiteko nahia piztu zitzaion barru-barruan. Bertokoak ordea hitz gutxiko eta mutuzale kausitu zituen. Kontu hari buruz hitz egiteko debekua sumatu zuen gainean... Eta laster ohartu zen baita inork ez zuela gustuko gai hari buruz mintzatzea.

***ko herria kostaldean zegoen, eta ogibidez arrantzaleak ziren ia denak. Agure zaharrak jakin nahi zuen; itsasargiko lagunari eskerrona eman nahi zion. Baina inork ez zekien ezer hartaz, egiten zituen galderei itzuri egiten baitzieten onez ala txarrez, disimuloz ala lotsagabekeriaz. Berdin zien.

—Behin batean egunsentira arte ibili nintzen. Bat-batean, itsasargia azaldu zitzaidan begi aurrean. Lehorretik dozenaka metrotara zegoen, itsasoan isolaturik, itsas beheraldian oinez joatea ia-ia posible bazen ere. Leiho txiki batzuk zeuden goian, eta horietariko batean, emakume baten irudia antzeman uste izan nuen. Emakume bat!

Berebiziko aurkikuntza haren ondoren, itsasargiaren misterioa jakin arte herri hartatik alde ez egitea erabaki zuen, bai eta horrelaxe egin ere, aurrerago ikusiko denez.

—Irudia ikusi nuenean, bihotzean min leun eta gozoa sumatu nuen. Errefuxatu zaituen emakumeak eragiten duena bezalakoxea. Nire eskerrona erakutsi nahi nion halere. Esan nahi nion... —agureak duda egin zuen, hitz egokiak bilatu nahian—, adierazi behar nion... itsasoan galduta

nengoenean nola sentitzen nintzen... gaua tunel amaigabea zela, eta nik bestaldera iritsi nahi nuela baina zerbaitek eragozten zidala...

Horrela, hunkigarriri mundu guztiari kontatzen zion bere istorioa. Bazirudien istorio bakarreko gizona zela, beti gauza bera kontatzen baitzuen. Errealitatean ordea, bizipen ugariko gizakumea zen. Gogoak dena den, normalean atxekitzen du burdin goriaren temaz markatuta utzi zaituena.

—Itsasoak esaten zidan «hireak egin dik», baina itsasargiak esaten zidan «lagundu egingo diat». Hunkipena berreskuratu nuen. Zeinen garrantzitsua den hunkipena berreskuratzea... Itxaropena pizten du horrek. Ni itsasoan flotatzen ari zen haragizko enborra nintzen, uhinen kulunkak horra-hona eramana. Baina itsasargiak nire barruko hunkipena iratzarri zuen, eta nire besoak berriro ere lanean hasi ziren. Orain baneukan helburu bat! Hondartzara iritsi beharra neukan. Argiak erakusten zidan puntura iritsi behar nuen! Ja, ja. Hondartzara! Besoak berriro ere nireak ziren, nire aginduei men egiten zioten-eta. Bizirik nengoen, eta... bizirik jarraitu nahi nuen! Eta hori guztia aldiro-aldiro gaua urratzen zuen argitxoari esker.

Agurearen kontaketak berriz ere jo zuen itsasargiko leihoan emakumearen irudia ikusi zueneko egunera.

—Horregatik, irudi hari begira ametsetan bezala egon nintzen luzaro, eta nire amets hartatik atera nintzenean, irudia desagerturik zegoen. Begiak zorroztu nituen, baina alferrik. Leihotik hustasuna niri deiadarka ari zen eta itsasoak orro egiten zidan, handik alde egiteko agindu nahian edo. Itsasegitik ibili nintzen herrian sartu arte. Egiatan esaten dizuet: emakume haren sekretuaz jabetu behar nuen. Zeren horrela egin ezik, misterio hura bizitza osoan jarraikiko

zitzaidan. Eta nik ez nuen bizitza osoa galdera baten zain pasatu nahi.

Herri koxkor hartan bi familia ziren, biak egoera benetan inbidiagarrian (hirian deus izateko aukerarik izango ez zuten arren). Eta agureak jakin ahal izan zuenez, emakumea familia haietako baten alaba zen. Herrian zehar egiten zituen «ikerpenek» inora ere eramango ez zutela konprenituta, naufragio gauean bera jaso zuen gizonaren etxolara berriro ere jotzea erabaki zuen. Honek hasiera batean mutu iraun zuen. Baina azkenez, gehiegizko jakinguragatik hain larri ikusi zuen, argibideak eskaintzea amore eman zuen.

Herrian bi familia boteretsu ziren. Eta haien arteko ezinikusia beraien «boterea» bezain benetakoa zen. Azken finean, emakume eta gizon baten istorioa zela jakinarazi zion.

—Romeo eta Julieta bezala? —galdegin zion trufati.

Besteak berriz, txantxarako girorik ez eta hironiari txiri egin zion, humore txarrez.

—Entzun —hasi zen—. Errutasuna ez da txantxetako zama. Erruduna zarela pentsatzen duzunean, barneko harra behin eta berriz horzka ari zaizunean... Ez dakit nola esan, baina bakean bizitzen uzten ez dizun zerbait da. Behinola, egun batez, ordu batzuz, segundu bakarrez gaizkile izan zinela jakitea... Ulertzen? Begiak ixten dituzu eta gizonaren alderik txarrena besterik ez duzu aurkitzen. Zu itsasoan naufragoa zინenean bezala. Ulertzen? Ilun beltzean zeunden. Zeure burua hildakotzat jotzen zenuen, heriotza desiratzen hasi zinen-eta. Baina bat-batean itsasargiko argia ikusi zenuen eta berriz ere bizitzen jarraitzeko gogoia eta indarra kausitu zenituen. Beno bada, hori bera gertatu da

herri honetan. Zuk, nahi baduzu, barre egin dezakezu. «Romeo eta Julieta», ezta? Baina nik bakarrik zera esango dizut. Maitasun istorio bat da. Istorio gogorra, ezinezkoa, herri osoa konprometatu zuena, eta herri osoak hartu zuen alderdi baten aldeko... edo kontrako jarrera. Gau-gauero, itsasargiko argia pizten denean, etengabe piztu eta itzaltzen den argi hori, gu salbatzera etorritako argia da. Eta hobeto sentiarazten gaitu. Gure lotsa gogora ekartzen digulako. Eta egunean-egunean zapaltzen gaituen pisua arintzen digu. Ulertzen? Zu naugrafo zeundenean bezalaxe. Argia ikusi eta salbatu egin zinen, ezta? Batzuetan, begira, esango dizut zer pentsatzen dudan: itsasargi hori ez dagoela marinela salbatzeko, gu salbatzeko baizik, guri gogorazteko baizik. Oroimena baita gauzarik inportanteena. Izan ginen ala ez ginen izan. Ez da berdin. Ulertzen? Iraganean egindakoa orainaldiaren baieztapena da. «Ni izan nintzen; beraz, oraindik banaiz, gogoratzeko gauza naizenez gero». Baina erruak, gaizki egindakoak alegia, iragana bizira ekartzen du, eta iragana orainaldi bihurtzen da, onerako ala txarrerako. «Romeo eta Julieta» —bukatu zuen mespretxuz, eta txu bat bota zuen lurrera.

Hitz haiek entzunda, agurea oso inpresionatuta geratu zen. Baina hala eta guztiz ere ez zuen besteari gehiago ateratzea lortu. Gau hartan, behintzat, ez. Denborak kontatuko zion gainontzekoa.

Herri zaharra sekretu baten pean zegoela iruditzen zitzaion. Itsasoak eztarritik esku bat pasatu zion eta berak jakin nahi zuen zergatik ez zuen estutu eta bere erraietara eraman, gainontzeko lagunekin egin zuen bezala, berak ba baitzekien seguruaski bera zela naufragio hartatik onik ateratako bakarra edo bakarrenetakoa.

Herriak bere sekretua altxor bezala jagoten zuen, sakon lurperatuta dagoen urrea bailitzan.

Behinola, ikuskizun harrigarri baten lekuko izan zen: txalupa bat itsasargiraino hurbildu, janari pila bertan utzi eta bueltatu egin zen. Janari kaxak kanpoan geratu ziren ordu luzez. Gero, ustegabeen —edo hala iruditu zitzaion berari— emakumea beheko ate txikitxotik agertu, kaxak barruratu eta berriro desagertu zen, inoiz izan ez balitz bezala. Bere herriko ohitura zahar bat etorri zitzaion gogora, hildakoei janaria uzten zaion ohitura hain zuzen.

—Argizaiolak. Bai. Janaria eta argia uzten zieten hildakoei. Itsasargia argizaiola erraldoia zen. Hildakoei bidea erakutsi behar ziena. Hildako gizajoei bero gizatiar pixkat helarazi behar ziena. Baina emakume hura bizirik ala hilik zegoen? Nire zentzua dudatan jartzen hasia nintzen. Nire inguran begiratzen nuen erantzun baten eske. Eta bakarrik nire bihotzaren taupak jasotzen nituen erantzun gisa. Emakumea hilda baldin bazegoen, nola ote zen posible hildako batek gainontzeko hildakoei berotasunik helaraztea? Ez zen posiblea! Berotasuna zen gizakion ezaugarriarik nagusiena! Bizitakoa izan behar zuen... Hodeiak bueltaka ari ziren nire buruaren gainetik. Eta nik ez nekien zerua eta itsasoa nola bereizi. Hain antzekoak ziren... Nik bakar-bakarrik gogoratzen nuen, itsasoan galduta nengoenean... Larru-azala zimur eginda neukala... Eta zeru goikorantz begiratu nuenean, zerua zergatik ote zen hain ederra galdetu nion neure buruari... Eta itsasoaren erdian negarrez hasi nintzen! Ez nigatik ordea... Ez dakit... Hain zen ederra han egotea, horrela hiltzea, nire lagunak hil ziren bezala... Itsasoa ni bezalakoxea zela konprenitu nuen: gauza ulergaitz bat, goi mailako asmo batek hara jaurtikia bezala. Bakar-bakarrik

dagoen jainko oro-sortzaile bat bezala. Bere bakartasun horretan negar egiten duen Jainkoa bezala, urrikaltasun eta maitasunetik haruntzago. Gorroto eta bortxarik orotik urrun. Harik eta argizaiola itsasoa argitzen ikusi nuen arte. Orduan, berriro pertsona nintzela konturatu nintzen. Beste pertsona batzuen hurbiltasunaz sumatu nuenean, natura krudel eta isil hartatik eskapatzen ari nintzela sumatu nuenean, bada orduan, berriro ere, pertsona bezala hasi nintzen erreakzionatzen. Adibidez, negar egin nuen. Eta nire besoek nire aginduei men egin zieten. Hondartza kokkor hura... Gauean iluna, baina hala eta guztiz ere, horaila. Harea lehorra denean, badakizue...

Agurea emakumea noiz aterako zain egon zen, muino baten garaieratik zelatan. Primatiko zahar batzuei esker, itsasargiko emakumea urteetan apur bat sartzen hasita zegoela ohartu zen. Beraz, berarekin gertatutakoak aspalditxoko kontua izan beharko zuen. Hala arrazonatu zuen, eta ez zebilen oker.

—Niri erreparatu gabe zegoen neska gazte batengana hurbildu nintzen. Maria deitzen zen. Hamazortzi urte edo izango zituen eta berari esker dena garbi azalduko zitzaidalako esperantzaz jo nuen berarengana. Neska udaberriko lorea baino amarrugabea zen, eta nire hitz goxoei ez zien susmo txarrik hartu, hau da, berarenganako nire axola hau sekretu hartarantz bideratuta zegoela ez zen ohartu, gazteegia baitzen eta ondorioz, bere gurasoei entzundakoa hasi zitzaidan errepikatzen, ongi hazitako papagaitxo bat bezala. Horrela, piskanaka-piskanaka, misterioa estaltzen zuen armiarmasarea apartatuz joan nintzen, Mariaren kontaketa garatu ahala:

«...Jakin zutenean, haserre bizia hartu zuten bi

familiakoek. Aspaldi ziren etsai, eta batak besteaz ez zuen ezer jakin nahi. Bi familiak uztartu? Bai eta zera ere! Urte luzeetan instituzio bihurtutako gorrotoari amaiera eman? Zer pentsatuko zuten bada herrian, men egingo balute? Hura bai erokeria, hura! Beraz, bi gazteen nahari aurrea hartzerik ez zegoela konprenitu zutenean, bi familiek erabaki zuten haiek ondasunik gabe uztea eta inongo laguntzarik ez ematea. Bi gazteek aurrera jarraitu zuten ordea, beren maitasunean jarrita baitzeuzkaten ilusioak. Mutilak txalupa kaxkar bat hartu zuen akuran. Arrantzan harrapatzen zuenarekin ordaintzen zuen hilero-hilero txaluparen akura. Kostatik oso urrun ez zegoen etxola batean bizi ziren, haizeak burla egiten zien etxetxo apal eta gaizki gorderiko batean.

Pare bat urtez, gauzek horrelaxe segitu zuten. Egun batean berriz, mutilak esan zion neskari:

—Diru pixkat aurreraturik daukat, eta uste dut garaia badela gure txalupa propioa izateko.

Txalupa berria erosi zuten beraz, euren jabegokoa! Hura hartu zuten poza, hura! Familien ezinikusia gaindituta ikusten zuten. Herrian aro berriari ekiteko garaia zen!

Txalupa bataiatzeko eguna iritsi zen, eta mutilak neskari galdetu zion zein izen eman. Neskak isilik iraun zuen, duda-mudatan. Mutila berriz, azkar baino azkarrago aurreratu zitzaion:

—«Maite Zaitut» deituko diogu.

Neskaren bihotza olatu eztitsu batek gozo-gozo erasotua bezala izan zen. Ez zion erreparorik jarri, jakina».

Agureak kontakizunaren haria neskaren ezpainenetan jarrita bazeukan ere, hainbat oroitzapen eta gogoeta erantsi zituen bere kasa.

—Neska gaztearen gurasoek nirekin hizketan ikusi

zutela-eta, ez nintzen harritu agirika egiten ziotela ohartu nintzenean. Eta hurrengo egunean, neskak kezkatu aurpegia zuela agertu zitzaidanean, nigandik alde eragiteko gogoia izan nuen. Ez nuen horrela egin baina. Eta biok poztu ginen horretaz, gu bion arteko zubia eraikita geneukalako, eta jakin bagenekielako «zerbait garrantzitsua» egiten ari ginela, hau da, egia argitara ateratzen ari ginen, herrian nahaspilatutako egiari aurre egiten ari gintzaizkion. Orduan, horrelako sentipen bitxiak nereganatu ninduen. Neskaren erdi-egiako erdi-gezurrezko kezka zozotasun batean erorarazi ninduen. Beraz, hura etengabe akuilatuz bere gurasoei entzundakoa errepika zezan, nire begi alai eta jakingura haiekin eraso egiten nion, eta fisikoki bortxatuko banu bezala zen, Mariaren amarrugabetasuna hain zen begi bistakoa, non «zerbaiten» errudun bihurtzen bainintzen, neskaren nahiaren kontra istorioa eta sekretua bera biolentatzen egongo banintz bezala.

Mariak misterioa kontatzen jarraitu zuen:

«Familiakoek horren berri izan zutenean, bi maitaleen zoria estutzea erabaki zuten. Herrian inork ez zien arrainik erosi egin behar, horrela egin ezker bi jauntxoekin hirarekin topatu nahi ez bazuten behintzat. Herriko lojak, beraz, bizkarra eman zien. Eta inguruko herrietara jo beharra zeukaten itsasoan harrapatutako apurra saltzera, lau-bost kilometro gutxienez, gurdirik gabe. Bidea neskak egiten zuen, oinhutsik. Eta ondoko herrian ere, arazoak izaten zituen merkantzia saltzeko, bertakoek begi txarrez begiratzen ziotelako, beraien gurasoen eragina toki guztietara maldizio bezala iristen zen-eta. Beraz, askotan itzuli behar izaten zuen etxera arrainik saldu gabe, bideko harri koxkorretan oztopatuz, oinak odoletan zeuzkala ohartu

gabe, bere bihotzeko tristura hain baitzen sakona.

Mutilak berriz, beste arrantzaleek baino denbora askozaz luzeagoa igaro beharra zeukan itsasoan, bere lanbideari zegokion arriskua era nabarmenean handituz. Eta hori denek zekiten. Eta inork horrela aitortu nahi ez bazuen ere, jakin bazekiten. Eta zoritxarraren zain egoten ziren, erronkaren amaiera barruntatuz baina, aldi berean, sorpresarik ere egon zitekeela pentsatuz. Agian, baita desiratuz ere».

—Ai! —hots egin zuen agureak—, neskaren kontaera entzun ahala, zeinen arrazoizko zen nire beldurra eta zer-nolako hunkipena nuen!

Hurrengo egunetako solasa motza eta eskasa izan zen. Negua aurrera zihoan eta azken egunetako hotzak atzean gelditzen ari ziren.

«Maritxu», holaxe deitzen zion-eta bere konfidenteari batzuetan, garai hartan bakan biltzen zen harekin. Gurasoek zorrotz zaintzen zutelako batetik, eta azken egunetako giroa txar-txarra eta beltz-beltza izan zelako bestetik. Berak ordea, gero eta hurbilago somatzen zuen kontakizunaren bukaera, eta gogo bai gogoz egoten zen Maria noiz agertuko zain, istorioari zegozkion zehazkizunetan itxaropena jarrita, bakarrik horrelaxe uler zezakeen-eta zergatik zegoen bizirik, zergatik izan zen bera naufragiotik salbatu zen bakarra, gau hartan zergatik salbatu zuen hiltzetik itsasargiko begi-kliskada hark. Erantzunak behar zituen, bere iragan, orain eta geroa betetzen zituzten galderez asetzeko. Eta neska gazte hura, Maria alegia, bera zen erantzun horiek guztiak ziurtatzen zizkion izaki bakarra. Bere ahots samur eta dardartsuaz gain, itsasoaren arrenkura beste ezer ez zitzaion ailegatzen. Egun haietan, hau da,

Maritxu berarekin ez zenean, hiltzea desiratzen zuen, eta itsasoari aupa egiten zion, zergatik ez zuen berarekin eraman kexakor.

—Galdegin ere galdegiten nion neure buruari zentzua ez ote nintzen galtzen ari. Baina handik apur batera, eguzki-errainuak eta loreen perfume-usaina etorri ziren, eta gehiago ez nuen pentsatu sufrimendu eta zorigaitzean. Noski, ordurako Maritxu berriro ere nirekin zegoen, arratsaldeak nola edo hala pasatzeko prest, zintzilik zegoen istorioari —nola ez ba— azken emateko gogoz. Udaberriak martiriozko egunak —jadanik pasata zeudenak— barreiatu nahi zituela jakin nuen. Eta Mariak kontakizunari heldu zion, bukaera argitu zidan arte:

«Mutilak gero eta ordu gehiago igarotzen zituen itsasoan. Batzuetan, galernaren zantzuak nabarmen igartzen ziren arren, berak arrantzan jarraitzen zuen, bizimodu petralak hartaratuta. Eta horietako egun batean, galernak inoiz baino gogorrago jo zuen, itsasoan haize zirimolak altxatuz eta olatuei apar errabiatuak ateraraziz. Udazken bukaerako sasoia zen, eta neguko egun beltzei aurrea hartu nahi zien, ahalik eta gehiena arrantzatzeke, tamaina txikiko antxoa batez ere. Guk lehorretik mutilaren txalupa ikusten genuen olatu batetik bestera. Halako batean zerua goibeldu zen, gaua denbora baino lehen etorria bezala. Enbataren beldurrez, herriko arrantzale guztiak aspaldi zeuden porturaturik. Berak ordea han jarraitzen zuen, eta herrian gauza onik ez zen espero. Jendea pilatuz joan zen, ikusmin goibelaz. Olatuak mordoka, pilaka zetozen. Berdeak, urdinak, zuriak... mota guztietako larru azala zuen itsasoak, eta bere orroa «in crescendo» zihoan, zarata gorgarri bihurtu arte. Mutilak txalupa gobernatzeke ahalegin guztiak egiten

zituen, eta guk geure isiltasunetik begiratzeko genion, apur bat etsita, okerrena barruntatuz. Marinela gizajoaren emaztea etorri zenean, isiltasuna sakonago egin zen. Herriko tabernak hutsik zeuden, herri osoak gertaera tragikoaren lekuko izan nahi zuen-eta. Halako batean, deiar bat entzun genuen. Berak jaurtiki zuen, emazteak alegia. Txalupa airean itzuli bat egiten ikusi genuen. Gero ezer ez. Desagertu egin zen. Berehala, jendea apartatzen eta segituan etxerako bidea hartzen hasi zen, neska gajoa negarretan utzita. Gutako inor ez zen beragana hurbildu bere atsekabea arindu edota erdibanatzeko, ez eta dolimina agertzeko ere. Lotsatuegi geunden. Guk bagenekielako erruaren zati bat bizkarrean generamala. Eta etorkizunak, gure zama hori arindu beharrean astunagotu ere egingo zuela. Bi familien arteko ezinikusia, eta herri oso baten koldarkeria... Nolabait esateko. Azken finean, bizi-beharrak agintzen du-eta pobreaken gogo gainean. Edo atxakiatan ari naiz...?

Hurrengo egunetan emazte gajoa egunero jaisten zen hondartzara, ilusio desesperatu bati jarraikiz bezala, senar galduaren birpizte ezinezkoaren zain. "Agian, enbor bati helduta bizirik itzuliko zion itsasoak..." Gauzak gertatu egin direlako ziurtasunari kontrajartzen zaion errebelamendua, itxaropenik ez dagoela onartzeko nahia, indarra falta direnean. Goiz batean egiaren gorriak iratzartzen gaituen arte: "Ez dago. Joan egin da. Aulki horretan eseri ohi zen; eta bere alkondara hortxe dago, lixatu berria oraindik. Eta horiek ziren bere zapatak. Eta etxeak oraindik gordetzen du bere usaina."

Egunak joan eta egunak etorri, itsasoak noski ez zion bere maitea itzuli. Baina bera beti jaisten zen hondartzara, eta orduak eta orduak ematen zituen han,

harean eserita, alferrikako itxarote hari emanda. Ez dakit... Batzuen ustez, neska gajoak burutik jauzi zuen; beste batzuen ustez, bere maitasunaren gainean zubi bat eraki nahi izan zuen, argizko zubi bat, itsasoa bera zeharkatzen zuena... hilen lurralderaino. Auskalo. Beste batzuen iritzian, tragediaren lekuko izateak bere nortasuna birmoldatu egin zuela uste zuten, hau da, ezintasuna iltzea bezala sartuta geratu zitzaiola, eta ezintasun astun hura nolabait bere baitatik askatzearren, itsasargiarena bururatu zitzaiola. Baliteke. Kontuak kontu, amaiera tragikoak herria astindu zuen lurrikara bezala.

Egun batean, hondartzara jaisten zen egun haietariko batean, harean erdi-ezkutaturik, ezagun zitzaion zerbait ikustea iruditu zitzaion. Egur puska bat zen, berde eta gorri kolorekoa, ezpalduta eta gaizki erabilia, itsasoak itzultzen dituen objektu guztiak egoten diren bezala. Baina hura ez zen besteak bezalakoa. Hura bere mutilaren txalupatik erauzitako egur zatia zen. Bihotza taupaka hasi zitzaion indarrez, eta belauniko jarrita, harea eskuez apartatzeari ekin zion, egurrezko ataltxo haren azpian bere maitea aurkitzea espero balu bezala... Gu herritik den-dena ikusten ari ginen. Zoroa bezala ari zen harean arakutzen, ia-ia txakurrek egin ohi duten moduan. Dendariak kalera atera ziren, etxeoandreak leihotik eta ateetara agerturik zeuden, hondartzatik hurbil arrantzan ari ziren arrantzaleak ere begira gelditu ziren, jakinguraz. Eta ustegabeen, neska ikusi genuen egur puskari besoez inguratzen, bere maitea besarkatzen egongo balitz bezala. Eta segituan negarrez hasi zen, baina baita barrez ere. Eta egurrezko zatiari musu ematen zion. Eta horrelaxe egon zen une luze batzuez. Zentzua hondatzen ari zitzaiola pentsatu genuen. Gero, egur

puska zegoen tokian berriro ere utzi, poliki-poliki zutik jarri, eta hondartzatik alde egin zuen... Harez geroztik ez genuen bera berriro ere ez hondartzan ez herrian ezta inon ere ikusi, itsasargian bere burua itxi baitzuen bizitza osoko zigorra eman baliote bezala. Jakina, berak alde eginda, herri osoa hurbildu zen hondartzara, ditzosozko objektu hura zer izan zitekeen jakiteko. Egur puska handia zen, lantxaren baten txopa aldetik erauzita, eta txaluparen izena argi eta garbi irakur zitekeen. Emakumeek apenas ahal izan zioten negarrari eutsi, eta gizonek euren kapelak erantzi zituzten, errespetuz. Haurrak ere isil-isilik eta geldi-geldi egoten ziren, helduen hunkipen berbera erdibanatuz. Azkeneko agurra? Hildakoen aberritik helarazitako mezua? Herioren erresuma zeharkatzeko adinako indarra zuen maitasunarena? Hain garbia, hain erabatekoa, hain hunkigarria zen... Bi hitz, eta besterik ez: «MAITE ZAITUT».

NAUFRAGOAK

Zaplasteko handi bat entzun zen itsasoaren erdian.

—Ai! Zergatik egin duzu hori? —oihukatu zuen gizonak arrazoa ulertu ezinez.

—Egin zerbait! Ezin dut gehiago eta. Atera nazazu hemendik! —deiadar egin zion emakumeak bere senetik erabat irtenda.

Biek masta izandako egur-puskari heltzen zioten. Igeritako gerruntzeak jantzita zeuzkaten, eta horri esker flotatzen ahal zuten. Hiru egun ziren igaroak belauntzi txikia sutan hasi eta uretara jauzi behar izan zutenetik.

—Tira. Ez hasi negarrez berriro. Untziren batek laster jasoko gaitu-eta —saiatu zen gizona lasaikor.

Emazteak ordea, lehen baino indar handiagoz ekin zion negar egiteari. Baina ura ahotik sartu eta eztulek eta okek eten zioten negarra.

—Zuri bakarrik bururatuko litzaizuke zartagina sutan jarrita ohera joatea —aurpegiratu zion emazteak arrenkuraz.

—Istripua izan zen. Batzuetan istripuak gertatzen dira.

—Zer egin behar zenuen, ba, sukaldean goizeko ordubietan?

Senarrak barre txiki bat jaurtiki zuen. Eta dudamudatan erantzun zion:

—Bada... barre egingo duzu esaten badizut...

—Tira. Irrikan naukazu, jakinminez —erantzun zion gogo txarrez bestek.

Senarrak segundu batzuz duda egin eta azkenez esan zion:

—Bada... arrautza frijitu bat!

Emazteak berriro ere negarrez hasi zen. Berak orde, barreari eman zion ozenkiro. Itsasoan beste zaplasteko handi bat entzun zen arte.

—Ai! Bigarrena da minutu gutxitan. Berriro egiten baduzu, dibortzioa eskatuko dizut.

Oraingoan emazteari sartu zitzaion barre egiteko gogoa.

—Eta orain zertaz egiten duzu barre zuk? — galdegina zion gizonak haserre.

—Pentsatzen ari nintzen... —etenalditxo bat egin zuen ahoan sartu zitzaion zurruta botatzeko—, dibortziatuz gero, «ondasunak» banatu beharko genituzkeela. Enborraren erdia zuretzat! —eta hitz hauek esanda, barreari eman zion indar osoz.

Bi minutu pasata, emakumeak barrez jarraitzen zuen. Ezin zion barre egiteari utzi, histeria-atake batek jota zegoen-eta. Itsasoan hirugarren zaplasteko handia entzun zen arte.

—Barkatu —toteltzen hasi zen emazte gaxoa—. Kontrola galdu dut. Ez dakit ba zer gertatu zaidan. Mila esker.

—*Mila esker?* —errepikatu zuen senarrak harriturik— Zergatik?

—Ez dakit ba... Zaplastekoagatik edo...

Senarrari barretxo bat eskapatu zitzaion, eta emazteari ere berdin.

Gero, isiltasuna nagusitu zen. Itsaso berritsuaren ahotsa besterik ez zitzairen iristen.

—Arkaitz...

—Bai?

—Zuk... zuk uste al duzu... onik aterako garela?

Arkaitzek Lauraren hatz zimurtuak sentitu zituen bere eskua estutzen.

Itsasoaren taupa erraldoiak bezalakoak ziren olatuek gora eta behera eramaten zituzten, beraiekin jolasean arituko balira bezala. Haizetxo bat zebilen, eta ilargi beteak argitzen zuen tarteka-marteka eremu osoa.

—Adizu —esan zuen Arkaitzek bat-batean erne jarrita—, ez al duzu zerbait entzun?

—Zerbait entzun dudan?... —errepikatu zuen Laurak itxaropen-izpi batek aurpegi osoa argitzen ziola.

Biak adi-adi geratu ziren, itsasokoaz beste hotsik entzuteko ahaleginduz. Oraingoan Laurak oihukatu zuen:

—Norbaiten ahotsa entzun dut!

Olatu handi baina patxadatsuen gainetik gizon baten ahotsa entzun zitekeen orain nahiko garbi. Egia esanda, kantatzen ari zen gizon baten ahotsa zen. Eta kantuekin batera, hitz gorriak, barre-algarak eta mota guztietako zentzugabekeriak ailegatzen zitzaizkien. Itsasoak beste sorpresa bat prestatu zeukan.

—Nor dabil hortik? Entzun! Hemen gaude! —hasi zen Arkaitz bere indar guztiez oihuka.

Laura ere berehala hasi zen berarekin batera deiadarka.

—Lagundu! Naufragoak gara! Arren, lagundu!

Unetxo batez isildu egin ziren, erantzuna nondik iritsiko zain. Untziren bateko argiak ikusi nahian, begiak zorrozten zituzten aurpegiko larru-azala mintzeraino. Argirik ez zen, zoritxarrez, inondik ere ageri. Halako batean,

ahots bat beraiei deika entzun zuten. Hasieran, urruntasunagatik edota erantzuten zienaren ahultasunagatik, apenas entzun zuten ezer. Geroxeago berriz, nahikoa garbi iritsi zitzaizkien «salbatzaile»aren oihuak:

—Laguntza! Jainkoarren, lagundu niri! Naufragoa naiz! Hemen nago, hemen nago! —entzun zuten Arkaitz eta Laurak garbi-garbi.

Une batez, bihotza irauli egiten zitzaie la iruditu zitzaien. Beste naufrago bat! Beraiei deika ari zena beste naufrago bat zen! Ezin sinetsirik zeuden.

—Hau ez da posible... Ezin zitekeen bera ere... —hasi zen Arkaitz amorrua ozta-ozta menperatuz. Eta uretan ukabilkada bat jo zuen, aurpegiari atxeki zitzaizkion apar txikiak eta zipriztin ugari sortaraziz.

—Amezgaiztoa behar du izan. Amesgaiztoa behar du izan —hasi zen Laura erdi negarrez—. Ni lotan nago. Hori da. Lotan nago, nire belauntziko kamarotean. Ohean. Bai... Ze beroa egiten duen. Manta hauek, ohea... Dena oso lehor dago. Ni... ni...

—Nahikoa da! —deiadar egin zion Arkaitzek ezin gehiago jasanez—. Zu hemen zaude, nirekin! Ez zaude ohe lehor eta bero batean. Itsasoan galduta zaude!

—Ez, ez dut nahi! —hasi zen berriro ere zotinka.

—Entzun, Laura. Hitzematen dizut hemendik aterako zaitudala.

—A, noski! Trueno kapitainak Sigfrido salbatuko du. Bejoindeizula, matxista horri!

—Joer... —marmartu zuen Arkaitzek egonarri handiz.

—E! Nor dabil hortik? —entzun zuten ustegabeen. Eta berriro ere: —Zerbait egin al dezakezue nitaz? Gero

jarraituko duzue-eta eztabaidaka.

—Gu ere naufragoak gara! —deiadar egin zion Enekok.

Plista-plasta batzuk entzun zituzten urrunean. Eta handik segundu batzuetara, ezagun izaten hasia zitzaion ahotsak ihardetsi zien:

—Bada ondo jaiota gaude! —eta segituan barreari eman zion. Gero, barrea eten eta esan zien: —Ba al dakizue zenbat kilo pisatzen ditudan? —erantzunaren zain egon gabe hark berak erantzun zuen— Ehun eta hamar kilo! Ez da gutxi, ezta?

Arkaitz eta Laurak berriro ere barre egiten entzun zioten. Biek elkarrri begiratu zioten, apur bat jostaturik, baina ez zuten ezer esan. Azkenez, Arkaitzek zerbait esan behar zuela sinetsirik, galdegin zion:

—Zera... ondo al zaude?

Bestearen ahotsak barre algaraka erantzun zion. Eta entzun zioten galde egiten ziela:

—Txaluparik edo ba al duzue?

Oraingoan Laura azkartu zen erantzutera:

—Ez, masta-puska bati helduta gaude-eta. Igeritako gerrontzeak ere baditugu, baina besterik ez!

Eta besteak:

—Bada nik gomazko txalupatxo batean nago. Baina arraun bakarra nuen eta atzo deskuidoan galdu egin nuen. Itsasora erori zitzaidala esan nahi dut. Beraz, ez daukat modurik zuengana hurbiltzeko. Gainera, korronte indartsu baten erdian nago eta arrauna izanik ere, ez dut uste zuengana hurbiltzerik izango nukeenik. Baina horrek orain ez du axolarik.

Korronte baten erdian zegoela entzun zuen

Arkaitzek jakinminez. Berak gauza asko ikasita zeuzkan itsasoko kontuei buruz. Korronteak esaterako sarritan gurutzatzen ziren beste korronte batzuekin. Korronte horietako batek ipar polora eramán zaitzakeen; eta beste batek berriz, Gineara. Inork ez zekien gauza handirik horretaz. Korronteak non, nola, nondik sortzen ziren... Auskalo. Baina korronteak gizaki bakoitzaren patuak bezalakoak zirela otu zitzaion, hots, misterioitsu, desberdin, igerkaitzak ziren... Beraiek ere beste korronte batean zeuden, eta noraino eramango zituen jakiteko, oraindik ere itxaron egin beharko zuten. Bien bitartean, masta puska sendoari gogor helduko zioten, itsaso haren erdian segurtasun eta babesa ematen zien gauza bakarra egurrezko zatitxo hura baino ez zen-eta.

—Imanol Lasarte deitzen naiz —entzun zioten olatuez gaindi heltzen zitzaien ahotsari—. Ni hiltzen saiatu ziren. Nire emaztea eta bere amorantea ni hiltzen saiatu ziren. Ni milioiduna naiz... edo nintzen, ez dakit —barre egiten entzun zioten—. Hilabeteko itsasaldia egin behar genuen. Nire emaztea, Joakin Urdaneta lagunmina eta hirurok. Nik ez nekien «liatuta» zeudenik. Are gutxiago ni «desagertarazteko» asmoa zutenik ere. Baina den-dena jakin nuen. Bai eta garaiz jakin ere! Ni hil eta gero, itsas kolpe batean desagertua nintzela esango zioten mundu guztiari. Baina nik den-dena jakin nuen. Ez galdetu nola. Horrek orain ez du garrantzirik eta —barretxo bat eskapatu zitzaion—. Kasualitate hutsa. Badakizue. Tira, kontua da aurrea hartu niela. Beraz, jaki eta hornidura pila hartu, txalupa askatu eta hemen nago! Oraindik bizirik diraut behintzat...

Kontaketa entzunda, Arkaitz eta Laura une batez

itsasoaren erdian galduta zeudela ahaztu ziren. Hura bai istorioa, hura! Hilketa!

—Pelikuletan bezala!... —hots egin zuen Arkaitzek harriduraz.

—Adizu! —hasi zen Laura zerbait esan nahian, hitz egokiak zeintzuk ote ziren oso ondo jakin ez bazekien ere—. Zerbait... zerbait egin al dezakegu zugatik?

Galdera egin bezain laster, lelo hutsa sentitu zen. Baina galdera egina zegoen, eta haize edo itsasoaren bidez iritsita egongo zen ezezagunaren belarrietara. Beraz, ez zegoen atzera egiterik. Gainera, nori axola zitzaion, itsaso zabal eta beldurgarri haren erdian galduta egonik, nori inporta zion leloa ala adimentsu izateak? Harropuzkeriaren garaiak atzean zeuden. Ala aurrean. Bost axola. Denboraren mugak eta espazioarenak ez al dabilta beti elkarrekin nahastuta?

—Nigatik zerbait egin dezakezuen...? —entzun zuten handik eta gutxira—. Baietz uste dut... Lehorrera iritsiko bazinate, konta ezazue nik hemen esandakoa. Hau da, jakin dezatela denek ni hiltzen saiatu zirela. Nire emaztea eta nire amorantea izan zirela. Joakin Urdaneta deitzen zen nire emaztearen amorantea. Joakin Urdaneta. Oroituko al zarete?

Azken hitzak ozta-ozta entzun zizkioten, itsas korronteak beraiengandik gero eta urrunago bultzatzen zuen-eta.

—Joakin Urdaneta... —entzun zuten urrun-urrunetik bezala.

Gero, ezer ez. Ahotsa desagertu egin zen. Berriro ere, itsaso zabalean bakarrik gelditu ziren. Ahots harengan pentsatzeko ahalegin handia egin zuten, baina itsasoaren

grabitatea eta bakardadea besterik ez zuten euren gogora ekartzea lortu.

—Laura... —ahoskatu zuen Arkaitzek samur.

—Bai... —erantzun zuen besteak mekanikoki.

—Noizbait... Noizbait...

—Noizbait *zer*?

Arkaitzek galdera bukatu behar zuen ala ez une batez duda egin eta azkenez, galdera egitea erabaki zuen:

—Noizbait ipini al zenizkidan adarrak?

Laura barrez hasi zen. Hasiera batean, poliki-poliki; gero, ordea, gero eta indar handiagoz; eta azkenerako, bazirudien barre hura handik bizirik ateratzeko flotadore bakarra zela, hain beharrezkoa eta ezinbestekoa zirudien. Itsasoan laugarren zaplasteko handia entzun zen arte.

—Eskerrik asko, Arkaitz.

—Ez horregatik, Laura.

—Uste dut neure buruaren kontrola berriro ere galdu dudala.

—Ez kezkatu. Min egin al dizut?

—Ez, Arkaitz. Zaude lasai. Merezi dut-eta.

—Tira, Laura. Lehorrera iristen bagara, tratu txarrak direla-eta ni salatzeke aukera izango duzu.

—Lasai, horrelaxe egingo dut-eta.

Arkaitzek berriro sentitu zituen Lauraren hatz zimurtuak bere eskua estutzen. Eta negargura korapilatu zitzaion eztarrian.

Olatu handi bat etorri eta gorantz altxatu zituen Arkaitz eta Laura, masta eta guzti, paperezko bi panpintxo izango balira bezala. Espazioan grabitatzen egotea bezala zen. Une batez, koete batetik eroritako astronautak ez ote ziren izango galdetu zion Arkaitzek bere buruari.

—Gazteagoak ginenean... oroitzen? —esaten hasi zitzaion Laura bat-batean.

—Adizu... —moztu zion Arkaitzek—. Ez dakit konturatu zaren, baina... hilketa baten lekuko bakarrak gara!

Laurak barreari eman zion.

—*Lekuko bakarrak garela?* —errepikatu zuen hironiaz—. Zeren lekuko gara gu? Hamaika bat hilketa ikusteko aukera izan dugu lehen, geure planetatxo zahar honetan, eta... hilketatxo baten lekuko izan garelako... horrelako garrantzia geure buruei eman?

—Laura... Errealitatea distortzionatzen hasia zara... —eten zion Arkaitzek gogo handirik gabe.

Laurak barre egin zuen.

—Ba al dakizu gauza bat?

Arkaitz, Lauraren galderari zerion tonua zela-eta apur bat beldur izan zen. Baina azkenez galdegin zion:

—Zer gauza da hori...?

—Lehen galdetu didazu... —aurrera jarraitu ezinez gelditu zen Laura.

—Bai...? —lagundu zion Arkaitzek atezu hutsean.

Laura duda-mudatan gelditu zen, erantzun baino lehen. Gero, zizpuru bat botaz —zizpuru hartan munduari uko egingo balio bezala— gaineratu egin zuen:

—Adarrak jarri nizkizun, bai.

Arkaitz esaldi handi bat asmatzen saiatu zen, baina ez zitzaion ezer bururatu. Begiak malkoz betetzen zitzaizkiola sentitu zuen; hala ere, ahalik eta hobekien disimulatzen saiatu zen.

Laurak aurrera jarraitu zuen.

—Azpeitian izan zen, bai. Gau hartan... Oroitzen? «Itoitz» taldeak jotzen zuen herriko plazan. Nahiko edanda

geunden zu eta biok... Ordu batzuz desagertu egin ginen.

Olatu handi batek bere magalean hartu eta Txindokiko tontorrera igotzen arituko balira bezala sentiarazi zituen. Arkaitzek ez zuen ezer gogoratu nahi. Bihotzean min anker eta sorgorra sentitzen zuen. Besterik ez. Gero, Lauraren ahotsaz jabetu zen berriro, haren ahotsa zenik konturatu ez bazen ere.

—Garai hartan oso bakarrik nengoen... Zuk ez zenidan kasurik egiten eta...

Olatuaren aldapan behera jaisten ari zirela sentitu zuen oraingoan Arkaitzek. Ez zekien zer esan. Azkenez, esan egin zuen:

—Otrarraina maionesarekin jango nuke —eta berehala sentitu zen ergel handi bat bezala.

Laurak ez zion ezer erantzun. Baina handik gutxira, galdegin zion:

—Nahi al duzu zu bakarrik uztea, oraintxe bertan?

Arkaitzek harriduraz begiratu zion Laurari.

—Zer esan nahi duzu?... —galdegin zion bere aldetik.

Laurak ez zion berehala erantzun.

—Nahi baduzu, Arkaitz, enborrari agur esango diot oraintxe bertan.

Arkaitzek izaturik begiratu zion.

—Zer diozu...? —entzun zion Laurari.

Apurtxo baten ondoren, Arkaitzek:

—Zuek, emakumeak, oso grinatsuak zarete...

Itsasoak beste uhin bat bidali zion, eta gora eta segituan behera eraman zituen.

—Baita xebreak ere —gaineratu zuen Arkaitzek berak. Eta apur bat tontoa sentitu zen—. Herodoto orain

dela 2.500 urte bizi izan zen —esan zuen gaiaz aldatu nahian bezala.

—Zer! —hots egin zuen Laurak erabat harrিতuta.

—Herodoto orain dela 2.500 urte bizi izan zela esan dizut —erantzun zion Arkaitzek berriro. Bazirudien bere buruari bihotz eman nahi ziola.

—Eta...? —galdetu zion Laurak arrenkura pitin batez.

—Entzun —esan zion Arkaitzek—, orain arte beti hitz egin izan dizut pinturaren koloreak erabiliz —isilune bat egin zuen—. Orain berriz, bihotzetik ateratzen zaizkidan hitzak baino ez zaizkizu belarriratuko. Ez dut gezurrik gehiago esan nahi.

Laurak barre egin zuen.

—Orain badakit zer den hitz egitea —moztu zion Arkaitzek jaramon handirik egin gabe.

—Begira! —eten zion Laurak—. Koka-kola lata bat, hor, zure ondoan!

Arkaitzek ez zion, ordea, kasurik egin. Bere bakardade hartan gobernu bat bezain indartsu sentitzen zen. Lauraren ahotsa gorrotagarria iruditu zitzaion. Berak ere ihes egin nahi zuen. Baina ihes egin *nondik, nora?* Erantzunak itsasoa bezain labainkor eta hezetsuak agertzen zitzaizkion. Eta saiatu zen gaztetako oroitzapen bati eskua luzatzen. Baina ezin izan zuen. Eta bihotzean min handia sentitu zuen, berak bere burua ulertzen zuelako. Baina, beste inork... ezer ulertuko zuen berataz?

Laura ez zen itsaso nazkagarri hartan galdutako abstrakzioa baizik. Hala iruditu zitzaion behintzat.

Gero, kritikariez oroitu eta bere haserrea areagotu egin zen —Arkaitz artista zen baina kritikariek inoiz ez

zuten ondoegi erabili—. Eta orduantxe konturatu zen berak ez zeukala handik bizirik irteteko aukerarik. Baina ez zion axolarik eman.

Jadanik ez zion hurrengo olatuari kontu ematen. Bere birikek hartzen zuten arnasaldi bakoitzari baino ez zion ardura ematen. Bien bitartean, historiak bere luma hartu eta idatzi behar zuena idatzita zeukala ulertu zuen.

«Hobe beste norbait banintz eta beste norbait bezala bizi izan banintz» esan zion bere buruari.

Eta aspaldian egindako obra batez oroitu zen, han, itsaso madarikatu haren erdian, berak batere maite ez zuen emakume haren ondoan zegoelarik...

—Bai —marmartu zuen bere artean—. Zeinen erromantikoa naizen. Baina, nori axola dio...?

—Horiek al dira bota behar zenituen *hitz handiak*?
—ihardetsi zion Laurak isekari.

Arkaitz minduta zegoen. Berak ere mina egin nahi zion. Une hartan, nahiz eta euren bizitzako azken uneak izan, mina egin nahi zion.

—Nik ere engainatu izan zaitut. Eta ez behin bakarrik, askotan baizik. Ahal izan dudan guztietan. Estudioko modeloekin. Ezezagunekin. Emagalduekin ere bai. Edonorekin.

—Kabroi alua... —hasi zen Laura. Baina isildu egin zen, negar-zotinek itota.

Ia berehala damutu zitzaion hitz haiek esan izana. Bere atsekabea arindu beharrean, lehen baino okerrago sentitzen baitzuen bere burua orain. Mendekuak dakarren garaipena nahiko mingotsa dela pentsatu zuen. Gainera, esandakoa ez zen guztiz egia. Behin bakarrik izan baitzituen ustegabeko harreman sexual batzuk, hamar minutu baino

gehiago iraun ez zutenak. «Hamar minutuko infidelitasuna» pentsatu zuen apur bat jostaturik.

—Ez da egia. Sentitzen dut, Laura. Minduta nengoen, eta mina egin nahi nizun —hasi zen bere burua zuritzen.

—Zure eskuzapia utziko al didazu? —esan zion Laurak sudurrak zintz egiteko itxura eginez.

Biek barreari eman zioten, eta atsekabeaz poliki-poliki ahaztuz joan ziren.

Bai, horrela hobe zen. Denbora gutxi geratzen zitzaien. Ordu batzuk barru ziuraski hilda egongo ziren, egur puskari heltzeko indarrak jadanik desagertzen hasiak baitzitzaizkion. Beraz, zergatik aldendu arrenkura eta gorrotoak janda? Laura hortxe zegoen, eta bera ere bai. Berak Laura maite zuen eta Laurak bera maite zuen. Zer axola zuen behin Azpeitian edota Pasaiko etxe hartan izandako infidelitateak?... Hori dena pasata zegoen eta ez zuen axolarik. Gainera, heriotza aurrean dagoen gizakiak ezin dio bere betiko pentsamoldearen bitartez munduari adio esan. Hori arrunzeria litzateke. Eta berak arrunzeriari gorroto zion. Kandinskyren «Zaldizko Urdina» bezala pasatu nahi zuen mundu honetatik, harrapalada horren erritmoan bizi eta hil nahi zuen. Beraz, azkeneko instantean zergatik jokatu gaizkile batek bezala, zergatik izan Diktadore bat bezain arrunt eta krudela?

—Ez nizukeen esan beharko. Horrelako egoeran egonda, gainera...

Entzun zuen Laurak esaten ziola.

—Ez du axolarik. Barkatu zuk ni ere bai —erantzun zion Arkaitzek.

Erabat izozturik bazeuden ere, biek berotasun

handia nabaritu zuten euren baitan. Eta elkarrekiko eta munduarekiko konfidantza berreskuratu zuten. Bai, horrela hobe zen. Askozaz hobe zen.

—Hor daude!! Hor daude!! —entzun zuten bat-batean beraiengandik hurbil.

Laura eta Arkaitz zeuden eremua argi indartsu batek argiztatu zuen. Gizon batzuen ahotsak entzun ziren. Arrantzaleak, zirudienez. Eta ezagun zitzaien beste baten boza ere iritsi zitzaien:

—E, bikote! Ni naiz. Ehun eta hamar kilo pisatzen dituen. Asesinatzen saiatu zirena. Imanol Lasarte. Lagun batzuekin etorri naiz zuen bila. Ja, ja. Oraindik ere aberatsa «naiz», beraz. Ja, ja, ja. Eta horrek orain *badu* axolarik!

Baina Arkaitz sutan jarri zen. Ez, berak ez zuen salbatua izan nahi. Egun gehiegi, ordu gehiegi zeramatzan itsasoan. Hiltzera zihoalako ideiara egina zegoen. Berrito ere itzuli? Zertarako, ba? Benetako bizitza absurdutzat jotzen zuen. Lehorreko bizimodu frakasatu hartara berrito ere moldatzerik ez lukeela izango iruditzen zitzaion.

—Ez! —deiardar egin zuen—. Ez dut nahi inork ni salbatzea!

Eta hitz horiek esanda, igeritako gerrontzea erantzi eta uretan desagertu zen.

—Arkaitz! Arkaitz! —oihu egin zion Laurak etsipen gorriaz—. Ezin didazu hau egin! Ezin didazu hau egin!

Laura jaso zutenean, oraindik esaten zituen behin eta berrito hitz horiek:

—Ezin didazu hau egin! Ezin didazu hau egin!

Halako batean, gaueko oihal ilunetik ustegabeen agertuz, Arkaitz beraiengana igerika eta oihuka zetorrela ikusi zuten:

—Itxoin! Hobeto pentsatu dut. Hobeto pentsatu dut.

Laura zorion hutsez negarrez hasi zen; Imanol Lasarte, ordea, barre-algaraka; marinelek harriduraz begiratzen zioten elkarri.

Naufragio hura bukatuta zegoen.

